



ITSASONDOKO UDALA

LAGUNTZA TEKNIKOEN ESKAERA ETA EGOKITZAPEN OBRETARAKO DIRULAGUNTZA

Zer da? Banakako diru-laguntzak eta babes-produktuak dira, eta horien xedea, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo beste administrazio eskudun batek desgaitutzat edo mendekotzat jotako pertsonen beren eguneroko jarduerak egiten eta gizarteratzen laguntzea da.

Laguntza motak

1. Mugikortasuna: gurpil-aulki elektrikoa, aulki bereziak, ibilgailuaren egokitzapena, ibilgailuaren erosketa, egokitutako altzariak, bainugelarako eta garbitasunerako osagarriak, jasogailuak.
2. Hirigintza eta eraikuntzaren arloko Irisgarritasuna: kanpo irisgarritasuna eta barruko egokitzapena.; bainugela egokitzeko dirulaguntza... Komunikaziorako laguntzak: entzumenerako protesia, pertsonen arteko
3. Komunikaziorako gailua, software egokitua..
4. Babes eta zaintza pertsonalerako.
5. Etxebizitzarako altzari eta egokitzapeneterako: ohe artikulatuak, dutxarako, aulkiak...

Nork eska dezake? Baldintzak:

- Eskabidea aurkeztu aurretik urtebetez Gipuzkoan errolatuta egotea.
- % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duen edo mendeko egoeran dagoen pertsona gisa kalifikatua egotea.
- Azken 6 urtetan antzeko laguntzarik ez jaso izana.
- Erabiltzailearen aldetik ordainketa daramaten laguntzetan, Foru Dekretuak ezarritako gaitasun ekonomikoaren maila ez gainditzea.

Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskatzailearen eta, hala balegokio, ordezkariaren NAN.
2. Eskatzailea adin txikikoa bada, familia liburuaren fotokopia.
3. Ezintasunen bat izanez gero, pertsona horren izenean eskaera aurkeztu duen pertsonak esleitua duen legezko ordezkariaren egiaztatzen duen agiria.
4. Eskatzen denaren zehaztu eta banakatutako aurrekontua.
5. Berreskuratzen ez diren laguntzen kasuan:
 - a. Aurreko urteko errenta aitortpena.
 - b. Bizikidetzaren unitateko kide guztiek dituzten dirusarreraren egiaztapenak.
6. Dirulaguntza jasotzeko Kontu Korrante Zenbakia.



**ITSASONDOKO
UDALA**

Nola eskatu daiteke?

- Aurrez-aurre: Itsasondoko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako sailean aurrez zita eskatuz. Astelehen eta ostiraletan: 09:00etatik 13:00etara | Asteazkenetan (Gizarte Zerbitzuetako administraria): 09:00etatik 12:00etara.
- Telefonoa: 943.881.170
- Email-a: gizarte@itsasondo.eus

Araudia

- 2008ko abenduaren 23ko 87/08 Foru Dekretua, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituena. (2008.12.31ko GAO)